



JOSE M^a SOBRINO BAÑARES, OÑATIARTUTAKO ERRIOXATARRA

Errioxako mahastien babesean sortu eta Oñatiko agustinoen gona artean hazitako gizon hau, maiz fraka motzetan, baloi baten atzetik, ikusteko aukera izan dugu.

Gure aurrean, Jose Mari Sobrinok bere bizitzari errepassoa ematen dio, berataz besteok ere pittin bat gehiago jakin dezagun.

**- Jaiotzez, nongoa zara Sobri-
no?**

Izatez Haro ondoko Casalarreinakoa naiz. Oñatira, 14 urtekin, 1952. urtean etorri nintzen. Beraz nere bizitzaren urte gehienak, bertan eman ditut.

- Nola ba Oñatira?

Gineaneko emakume bat zaintzen ari zen, Aita Elias agustinoaren arreba baten bitartez Oñatiratu nintzen. Honeik aitaren aldetik Rincon del Soto eta amarenetik Casalarreinakoa baitziren.

- Eta zuzenean agustinotara?


Bai, ikastera lehenago etortzerik ez nuen izan, eta bertaratzean, anaia lego moduan sartu behar izan nuen, lana egitera.

- Harrezkero gurekin zaude?

Ez, hiru urte eginda gero, 17 bat urtekin, Errioxara alde egin nuen. Han bost bat urtetan lanean jardun ondoren, soldautzara Ceutara, eta handik bueltan 62. urtean Oñatira berriz, oraingoan betiko.

- Berriro ere komentura?

Bai, lego moduan beheko komentuan izan nintzen 66. urte arte eta hortik aurrera San Lorentzon.



E

uskalduna izatez itxia da, baina behin adiskidetz gero, lagun hori betiko duzu.

- Agustino artean, zeintzuk ziren zure egin beharrekoak?

Danetik egin izan dut, sukaldari, sakristau.... Garai onenetan, 190 bat pertsonentzako janaria prestatzen genuen; 66-69 urteez ari natzaizu, hortik aurrera kolejioa gainbehera etorri baitzen.

- Noiz arte lego lanetan?
1980an utziko nuen.

**- Garai horretan zure jaioterri-
ra itzultzea, ez al zitzaizun bururatu?**

PEÑAKOBA

AUTOESKOLA

Arkitekto Lizaur
Tfnoa: 78 05 60 OÑATI

Zarugalde, 46 Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE



ARKAUZ "EZ UTZI EGUZKIAK
ZURE BEGIAK
MINTZEN"

Kalitate betaurrekoak, CEEren legeak betez

Lazarraga, 2. Oñati Tfnoa: 71 60 63



Mutikotan, 14 urtekin etorri eta berehala egin nintzen bertako.

Ez, ez, urte asko neramatzan herrian, lagun asko nituen, eta bizimodua bertara eginda neukan. Lana ere banuen, ETEO eta Lanbide Heziketa eskolen mantenimenduz arduratzen nintzen.

- Kirol zale amorratua zaitugu...

Bai, edozein kirol mota gustokoa dut: palan, futboleant, bizikletan, mendian,... asko ibilia naiz. Korrikan ere nahiko, Donostian 78ko urriaren 15ean egin zen lehenengo maratonia parte hartu nuen, 42 kilometroak 3 ordu eta 51 minututan eginez. Orduan gazteagoa nintzen, 41 urte izango nituen.

- Orain dela hilabete bat, omenalditxo bat ere izan duzu...

Aurtengo beterranoen futbol txapelketa bukatu zenean, futbol zelaian oroigarri bat eman zidaten, txapelketa honetan parte-hartze luzea izan dudalako, sortu zenetik laz arte hain zuzen. Jokalari moduan, duda barik, urte gehien jokatu duena izango naiz. Antolatzalei asko eskertzen diet nirekin gogoratu izana.

- Futbola utzita zaude orduan?



Aita Elias agusti-noaren arrebari esker, heldu nintzen Oñati-ra.

56 urte ditut, eta urte asko dira beterranoen futbol txapelketan segitzeko: egunen batean utzi beharra neukan. Dena dela futbitoan, hiruzpalau egunetan astero, jokatzen jarraitzen dut.

- Eta musean...?

Musean! Beno bai, muszalea ere banaiz. Auzo-jaietako eta zenbait tabernetako txapelketetan ere sarri samar hartzen dugu parte. Orain aste pare bat, adibidez, Txa-

Beteranoen futbol txapelketa hasi zenetik, urte gehien jokatu duena izango naiz.

pakin pareja eginez, Olakua jaietako mus txapelketan irabazle suertatu ginen.

- Parrandazalearen fama ere baduzu...

Bai, horretan ere ibili beharra dago. Asteburutan, gabaz irtezen dudanean, nere edadeko jendearekin ezin dut kontatu, gehienak ezkontuta daudenez, ez baitute urtetzen; beraz gazteekin ibiltzen naiz, eta atsegin dut.

- Zein da zure sekreto, herri-tarren artean hain ezaguna izateko?

Kirolari esker, batez ere, jendearekin hartu-eman ugari izan dut. Herri-tar asko etorri izan dira hona, San Lorentzoko futbol zelaietara, frontoira, dutxatara... . Eta hortik aparte zer esan haundia dauka bakoitzaren karakterrak.

- Euskerarekin, nola moldatzen zara?

Ulertu bai, nahiko nukeen baino gutxiago, baina zeozer ulertzen dut. Garai batean ez ikasiaz pena dut, nahiz eta orduan euskera erreprimituagoa egon, nik neuk nahiko kulpa badudala ere aitortzen dut. Hala ere, oso identifikatuta sentitzen naiz herri honekin, zeharo integratuta bai nago.

GALIZIA TABERNA

Espezialitateak:

Urdaizpiko iberikoa, Urdaizpiko jabugoa
Sanchez Romero y Carvajal
Bokadiloak. Pintxoak. Plater konbinatuak

Atzeko kale, 22 Tfnoa: 78 22 08 OÑATI

IRIZAR TABAKOAK

Paperdenda • Loto • Loteria

Foruen Enparantza, 6. Tfnoa: 78 00 15 OÑATI